

June Crespo Arte Ederretan lizentziatua da EHUn, eta 2015 eta 2017 artean De Ateliersen (Amsterdam) egon zen artista egoiliar gisa. Gaur egun, Leioako AAEEen Fakultatean irakasle elkartua da, eta 2020ko udan Tabakalera KGNZk eta Artium Museoak elkarlanean antolatutako JAI (Jarduera Artistikoen Institutua) ekimenaren lehen edizioan irakasle gonbidatuen klaustroan parte hartu du.

Crespok azken aldian jaso dituen sarien artean nabarmentzekoak dira, besteak beste, M^o José Jove Fundazioaren Nazioarteko Arte Saria (2019), RNE-ren Ojo Crítico Saria (2018), Botin Fundazioaren Arte Plastikoen beka (2018) eta sormen-lana saritzeko Gure Artea Saria (2013).

Bere erakusketen artean honako hauek aipatuko ditugu: *Voy, sí*, Heinrich Ehrhardt Galeria, Madril (2020); *No Osso, Certain Lack of Coherence*, Oporto, (2019); *Foreign Bodies*, P420 Galeria, Bolonia (2018); *Ser dos*, CarrerasMugica Galeria, Bilbo, (2017); *Chance Album n^o1*, etHALL, Bartzelona (2016); *Kanala, Intertextual* programa, MARCO, Vigo (2016); *Cosa y tú*, CarrerasMugica Galeria, Bilbo (2015).

Artium Museoaz gain, haren lanak Museo Nacional Centro de Arte Reina Sofía edo Arco Fundazioaren bildumetan daude, besteak beste.

June Crespo es licenciada en Bellas Artes en la UPV-EHU y entre 2015 y 2017 fue artista residente en De Ateliers (Ámsterdam). Actualmente es profesora asociada en la Facultad de BBAA de Leioa y ha formado parte del claustro de profesores invitados en la primera edición de JAI (Instituto de Prácticas Artísticas) organizada en colaboración entre el CICC Tabakalera y el Museo Artium en el verano de 2020.

Entre sus últimos reconocimientos, destacan el Premio Internacional de Arte Fundación M^oJosé Jove (2019), el Premio Ojo Crítico de RNE (2018), la Beca Artes Plásticas Fundación Botín (2018) o el Premio Gure Artea 2013 de reconocimiento a la actividad creativa.

Entre sus exposiciones señalamos *Voy, sí*, Galería Heinrich Ehrhardt, Madrid (2020); *No Osso, Certain Lack of Coherence*, Oporto, (2019); *Foreign Bodies*, Galería P420, Bolonia (2018); *Ser dos*, Galería CarrerasMugica, Bilbao, (2017); *Chance Album n^o1*, etHALL, Barcelona (2016); *Kanala*, programa *Intertextual*, MARCO, Vigo (2016); *Cosa y tú*, Galería CarrerasMugica, Bilbao (2015).

Además del Museo Artium, sus obras forman parte de las colecciones del Museo Nacional Centro de Arte Reina Sofía o la Colección de la Fundación Arco, entre otros.

Artium
Arte Garaikidearen
Euskal Zentro-Museoa
Centro-Museo Vasco
de Arte Contemporáneo

artium.eus
Frantzia kalea / Calle Francia 24
01002 Vitoria-Gasteiz



JUNE CRESPO

June Crespori (Iruñea, 1982) eskainitako erakusketak haren ibilbidearen une bateko eta besteko lanak bildu ditu Museoan, proiekturako berariaz ekoitzitako lan sailekin batera. Bere piezetan, Crespok gorputzari eta honek arkitekturarekin dituen harremanei buruzko hizkuntza bat lantzen du eskultura erabiliz. *Zuloak*, *hodiak*, *mugak*, *zirkulazioa* eta *hondarra* dira artistaren ekoizpenaren aipamena egiteko gehien errepikatzen diren terminoetako batzuk. Beti prekariatate materialetik, komunikabideen ekonomiatik *egiten aritzearen*, saiakeraren garrantzian tematzen diren eskulturak eta irudiak dira. Horrela, beti mugimenduan, praktikarekin etenik gabeko elkarrizketan irekitako alderdi eta interesei erantzuten die haren ekoizpenak, erreaktibatzen dituen prozesu eta mekanismoekin, aurreko lanetan arakatu daitezkeenak, horrela, erakusketa espazioetan gainjarritako genealogiak sortuz.

Horri jarraiki, erakusketa hainbat obra-multzoren bidez egituratzen da; horien artean, *Helmets*-ek, duela gutxiko pieza-multzoak, egitura eta izenburua ematen dizkio proiektuari. Eskultura horiek gorputzaren elementua hartzen dute euskarri gisa, eta artistak jarraitutako prozesu teknikoaren berri ematen dute; matrize beretik abiatzen diren gorputz-enborren sekzioak dira, ebaketak egiten zaizkienak, elementu funtzionalek zeharkatzen dituztenak, bikoiztuak eta, ondoren, mihizatuak. Multzo honetan, maniki soin baten jatorrizko forma eraldatuz doa, gorputzaren ideia bat proposatzeko, barnealde eta kanpoalderik gabeko azalera gisa, kanal eta zulo aktibo gisa.

Instrumentos y fetiches izeneko beste serie batean, formatu txikiko lanen sorta batean, eguneroko objektuei egindako moldeetatik abiatzen da Crespo, nola diskoak eta errotuladoreak, esate baterako; molde horiek gero segmentatu egiten dira, berriro mihiztatu eta brontzean urtzen dira. Haren lana *bricoleur* delakoaren logikarekin identifikatzen duen jarduteko modu bat da. Claude Lévi-Strauss antropologoak sortu zuen termino hori *Pentsaera basatia* (1962) testu ezagunean. Aurretik zeuden formak birkonfiguratzeko, konbinatzeko eta eraldatzeko prozesu horren bidez, elementu eta irakurtzeko modu berriak proposatzen dira, lehendik zeuden objektuen eta irudien elkartzeko ahalmena biderkatzen dutenak.

Erakusketa-proiektu honek artistaren azken ekoizpenak ere hartzen ditu barne, non lehenago bere prozesuetan konplize hutsak izandako materialak lehen planora igaro baitira. Horrela, argizariak esate baterako azken euskarri funtzioa hartzen du obra horietako batzuetan. Azalak edo oskolak gogora dakartzaten erretxinazko beste pieza batzuekin integratzen dira argizarizkoak ibilbidean, June Cresporen lanaren bereizgarri diren zulo eta hutsuneak gogoraraziz.

Artistaren ibilbideko hainbat une elkarrekin harremanetan jartzeko tartekatu egin dira piezak, espazioarekin eta arkitekturarekin elkarrizketa bat sortzeko asmoz. Merezi du nabarmentzea espazioen arteko ibilbide hori nola definitzen eta eteten den aldi berean: metalezko plano bertikalen bidez zatitutako formatu handiko irudiak proiektatuz, hormak zeharkatuz eta zulatuz, eta partitura erritmiko baten itxura hartzen duen sekuentzia lineal bat sortzen duten hormigoiz egindako obra-multzo bat sakabanatuz.



instrumentos y fetiches, 2017. Argazkia / Fotografía: Daniel Mera. Cortesía Galería CarrerasMugica-ren adeitasunez



Core, 2019. Erakusketa / Exposición 9kg de oxígeno, Oportoko Udal Ganbera / Camara Municipal de Oporto. Argazkia / Fotografía: Pedro Magalhães

La exposición dedicada a June Crespo (Pamplona, 1982) reúne obras que pertenecen a momentos previos de su trayectoria junto a series de trabajos producidos de manera específica para el espacio. En sus piezas, Crespo trabaja desde la escultura un lenguaje que remite al cuerpo y a sus relaciones con la arquitectura. *Conductos*, *límites*, *circulación* y *restos* son algunos de los términos habitualmente utilizados para referirse a su producción. Esculturas e imágenes que insisten —siempre desde una precariedad material y desde una economía de medios— en la importancia del *estar haciendo* y en la noción de *ensayo*. De este modo, siempre en movimiento, su producción responde a aspectos e intereses abiertos en un diálogo ininterrumpido con su propia práctica, con procesos y mecanismos que reactiva y que pueden ser rastreados en trabajos anteriores, creando así distintas genealogías solapadas en los espacios de exposición.

Siguiendo este proceder, la muestra se articula a través de diferentes grupos de obras, entre los cuales *Helmets*, un conjunto de piezas recientes, estructura y da título al proyecto. Estas esculturas toman el elemento cuerpo como uno de sus puntos de apoyo y dan cuenta del proceso técnico seguido por la artista; son secciones de torsos que parten de una misma matriz, son sometidas a cortes, atravesadas por elementos funcionales, duplicadas y posteriormente ensambladas. En este grupo, la forma original de un torso de maniquí se va transformando, para proponer una idea de cuerpo como superficie sin interior ni exterior, como canal y orificio activo.

En otra de sus series, *Instrumentos y fetiches*, una selección de obras de pequeño formato, Crespo parte de moldes realizados a objetos cotidianos, como discos y rotuladores, que son posteriormente segmentados, nuevamente ensamblados y fundidos en bronce. Una forma de proceder que identifica su trabajo con la lógica del *bricoleur*, un término que fue acuñado por el antropólogo Claude Lévi-Strauss en su conocido texto *El pensamiento salvaje* (1962). A través de este proceso de reconfiguración, combinación y transformación de formas preexistentes se proponen nuevos elementos y formas de lectura que multiplican el potencial asociativo de los objetos e imágenes preexistentes.

Este proyecto expositivo incorpora también las últimas producciones de la artista, en las que pasan a primer plano materiales que, en ocasiones previas, fueron exclusivamente cómplices de sus procesos. Así, la cera adquiere la función de soporte final en varias de estas obras. Estas se integran en el recorrido con otras piezas de resina que evocan pieles o cáscaras, y remiten igualmente a esos huecos y oquedades característicos del trabajo de June Crespo.

Las piezas se intercalan para poner en relación diferentes momentos de la trayectoria de la artista, con la intención de generar un diálogo con el espacio y la arquitectura. Merece la pena destacar la manera en la que este itinerario entre espacios se define e interrumpe al mismo tiempo: con la proyección de imágenes en gran formato, seccionadas por planos verticales de metal, con los muros atravesados y agujereados, y con la distribución de un grupo de obras realizadas en hormigón, que crean una secuencia lineal a modo de partitura rítmica.